

PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

HBI: Atmosfera ikertzen

Ikasgaia: Biologia-Geologia

Maila: DBHko 1. maila

DESKRIPZIOA

HBI hau baliagarria izango da atmosfera, bere egitura, konposizioa eta funtzioak ikertzeko, baita berotze globalarekiko nahiz klima-aldaketarekiko lotura eta ekosistemen gaineko ondorioak ere.

- Sekuentzia didaktikoak askotariko ikaskuntza-egoerak biltzen ditu, erronka txiki gisa aurkeztuta, zenbait saiotan lantzeko.
- Lortu beharreko helburuek lotura zuzena dute Biologia eta Geologiako kompetentzia espezifikoekin eta XXI. mendeko hezkuntzaren erronkekin.
- Erronka bakoitza ariketa bat gauzatzera zuzendutako ikerketa-jarduera gidatu batzuen bidez ebazten da.

METODOLOGIA

Erronkatan oinarritutako ikaskuntza: ikasleentzat motibatzaileak direnak, eta, ahal dela, ikerketa zientifikoko prozesu bat barne hartzen dutenak

ERRONKA / AZKEN PRODUKTUA

Nahiz eta HBIan zehar zenbait produktu sortzen diren, erronka bakoitza egitean, amaieran **telebistako elkarrizketa bat dago, drone baten jaurtiketa atmosferiko hipotetiko bati buruzkoa, non geruza atmosferikoen ezaugarriak azaltzen diren.**

ATAZAK

- **Laborategiko ikerketak** atmosferaren ezaugarriari ("estazioen" arabera) eta berotegi-efektuari buruz
- **Tertulia eta irakurketa zientifikoak** atmosferaren jatorriari eta atmosferaren geruzen tamainari buruz.
- **Bideo eta galdera** interaktiboak.
- **Joko interaktiboak** eta klima-aldaketari buruzko **eztabaida** zientifikoak
- **Aurreikuspen meteorologikoak** zenbait metodo erabilia
- **Mapa kontzeptual** klimatikoak.
- **Simulazioa:** euri azidoa laborategian.
- **Teknika kooperatiboak**, adibidez zalantzen zakua eta folio birakaria
- **Telebistako elkarrizketa drone baten jaurtiketa atmosferikoari buruz.**

EBALUAZIOA

Askotariko proposamenak, aniztasunari erantzuteko:

- Ikaskuntza-hausnarketak (metakognizioa)
- Balorazio-eskalak eta portfolioa
- Autoebaluazioa
- Koebaluazioa

TALDEAK

Talde desberdinetan egiten da lan:

- 4 ikasleko taldeak
- Binaka
- Banaka
- Ikasgelako taldea

SAIO-KOP.

- Ikasgelako **19 saio**